

## EUSKAL SOINU-TRESNA HERRIKOIEN ZABALKUNDEA HEZKUNTZA SAREAN

Juan Mari Beltrán

---

Izenburuztat daukagun gai honek aurkezten digunari aurre egitea ez da batere erreza izango. Asko izan bait da galdu egin dana edo galtzeaz dagoena, eta bizi den hori (mantentzeko eta dena) berreskuratzeko lana asko egin behar izatez gain, herri eta agintarien jarrera aldaketa sakona beharko litzake.

Euskal-herriak, soinu-tresna ugariarabili izan ditu historian zehar, hauetako batzu sinbolo bat izatera iritsi direlarik. Herri honen identifikagarri bezala ere erabiliak izan dira.

Herriak bere behar musikalak beteak izateko soinu-tresna hauen beharra izan du, eta oferta-demanda oreka bat mantentzen joan da denboran zehar.

Horrela izan da, gutxi gora behera XX. mende hasierarte. Orduan ematen da, kultura komunikatzeko eraren aldaketa, bai zabalkunde eta baita teknikaren aurrerakadagatik ere (irratia eta ondoren telebista), honen ondorioz, gure inguruko herrietako kultura autoktonoan atzerapausoak ematen direlarik. Honekin batera, balorazio erizpide aldaketa sakon bat jasaten da eta honek eragina izango du musika eta soinu-tresna herrikiengan.

### MUSIKA HERRIKOIA

Herrien arteko ezberdintasuna gehien adierazten duen elementua, dudarik gabe, bere kultura herrikoa da, honen zatirik garrantzitsuenetarikoa bat musika delarik.

Zer da eta nola osatu da herriarekin ain lotua eta identifikatua dagoen ondare kultural hori?

Asko dira musika herrikoa fenomeno fosilizatua, aldagaitza eta aportazio berriak onartzen ez dituela pentsatzen dutenak. Beraientzat, musika herrikoiak interpretazioa bakarrik onartzen du, sormenari aukerarik eman gabe.

Hau pentsatzen dutenen artean, kultura herrikoiarekin eta batez ere folkloreakin loturik daudenak aurki ditzazkegu. Beraiek interpretazio soilera mugatzen dira, "egiazko bertsoaren" benetakotasun eta jatorritasuna aldarrikatuz.

Bestalde, askoz eta gehiago dira herrietako kultura herrikoitradizionala, gure kasuan musika herrikoa, historiaren mementu batean eta era indibidual batean sortua izan ondoren, era aldagaitz batean errepikatua ez dela pentsatzen duten folkloreaken ikerleak.

Hau, zuzenean belaunaldiz belaunaldi transmititua izan da kolektibitate baten barnean edo famili bertan. Bere osaketan, neurric haundiago edo txikiago batean, parte hartzen joan da belaunaldi bakoitza, eta are gehiago, berau erabili duen pertsona bakoitza.

Doinu eta abesti herrikoiak biltzen ibili eta ibiltzen direnak lekuko izan ziren eta dira, nota, doinu edo abesti bera aldatua izaten den, bai kokapen ezberdineko lekutan jaso izan ondoren eta baita kokapen berdineko gazte bati edo heldu bati jasoa izan ondoren. Baita ere, aldaketa haundia jasango du, abestua izatetik soinu tresna batekin jo izatera edo soinu tresna ezberdinak erabiltzean. Berdina gertatuko da, leku berean handik denbora batera berriro jasotzean, eta askotan interprete bera da saio batean aldaketak egiten dituenak.

Horregatik, kantzionero herrikoietan, jatorri bereko doinu batean barietate haundiak aurki ditzazkegu; honekin frogatuz, musika herrikoa fenomeno bizia eta aldakorra izan zela, eta kasu askotan izaten jarraitzen duela.

Ikus dezagun C. Brailoiu etnomusikologo errumaniarrak horretaz zer esaten duen:

"Doinu herrikoiak ..... benetan abestu edo interpretatua den mementuan bakarrik du izatea, eta bere interpretearen borondateagaitik bakarrik bizi da berak nahi duen moduan.... Sortzea eta interpretatzea bertan nahasten dira....musika idatzi eta inpresorak ezagutzen ez duen moduan".

---

1. Béla Bartók "Escritos sobre música popular", p. 43. México, 1979. Siglo Veintiuno Editores.

Kantzionero herrikoiak horrela joan dira osatzen denboran zehar, bakarkako eta talde apartazioaren fruitu, denen artean itxura estetiko eta pertsonalitate berezia emanez.

Ez dugu ahantzi behar, kultura herrikoiak fenomeno irekiak izan direla, eta historian zehar beren harremanetan elkarren eraginak izan dituztela.

## GURE MUSIKA HERRIKOIAREN EGOERA

Gaur egun, eta batez ere mendebaldeko herrialdeetan, kulturaren zabaltze sistemak asko aldatu dira. Iadanik ez dira belaunaldiz belaunaldiko komunikazio era posible egiten zuten lehengo baldintzak ematen. Informazioa beste bide batzuetatik jasotzen da (idatzia, irratia, telebista, musika grabazioak...), hau ugariago eta zabalagoa da, nazioaren muga berberak ere gainditzen direlarik.

Honek eragin du, besteak beste, musikan, itxura estetikoak gero eta uniformeagoak izatea.

Aurrekoarekin batera, aipatu beharra dago, herriaren parte hartze aktibo eta zuzena txikiagoa dela.

Horregatik, azken garaian hainbat eta hainbat musika hizkuntz bereziak galduak izan dira, eta honek eragin du, herri askotako ondarearen atzerakada hain era nabarmenean ematea.

Bizitzeko, harremanak izateko eta komunikatzeko erak izan dituen aldaketak, aurreko ohiturekin loturiko zenbait elementu kulturalen eraginkortasunean (hala nola, dantzetan, abestietan eta nola ez hauei bizitza ematen zien soinu tresnetan) galerak ekarri ditu.

Musikan, iadanik lehenengo urratsak ez dira zuzenean ematen, lehen bezala ahotsak eta inguruko soinu tresnak entzunez.

Seaskan dagoen haurra lasaitzeko edo motibatzeko erabiltzen ziren abestiak, diska eta kasete komertzialengatik baztertuak izan dira.

Gaur egun, gure inguruan, umeak ez dira garai batean bezala ama-amonaren besoetan hazitzen.

Ama-amonaren besoetan hazi den haurrak zuzen zuzenean entzun dituen kantuen bitartez, bestela lortuko ez lukeen zenbait balioen garapena lortzen du (entonaziorako, erritmorako, dantzarako,... gaitasuna), guzti hori, abesterakoan eman den gorputz mugimenduen, kantu monodiko edo polifonikoen, e.a.en bitartez eman da. Nabarmena da, guzti hau mantentzen den herrietako haurren musikarako ahalmena haundia goa dela. Alderantziz, guzti hau gure inguruan galdua da, eta bertako haurrengan duen eragin ezkorra argi ikusten da.

Haur jolasak ez dira partehartzaileek abesturiko doinuen bidez egiten. Iadanik ez dira erritmo, tinbre eta linea melodiko ezberdinak ezagutzen hasteko soinuak jostailurik egiten. Aldaketa hauekin batera, psikomotrizitatearen eta gorputz trebetasunaren garapenean, abesteko eran, materiales eta beren soinu ezaugarrien eta soinu tresnen erabileraren eza gutzan galerak jasan dira.

Gazteek berriz, ez dute lehen bezala, beren festa eta bileratxotan abesten, orain, gehienetan, grabaturik dagoen musika entzutera mugatzen dira.

Berbera gertatzen da besteak beste, lana (bai lanera joateko, itzultzeko edo egiteko, erritmoa markatzeko erabili izan diren kantu eta doinuak), urtaro (urtaro aldaketak ospatzeko festak, besteak beste udaberri-ihauteriak, uda-San Juan,

udazkena-San Martin, negua-eguberriak), uzta (lurra esnatu arazteko, eguraldi egokia lortu ahal izateko, eta bestelako ekintzak), gizarteko gertaera ezberdin, e.a.-ekin lotua dagoen musikarekin.

Beraz, musika, pertsona eta gizartearekin zuzenean harremanetan zegoen. Orain, bere bizitzan parte hartzen zuen musika, gutxi batzuek egiten duten musikaren kontsumoagatik aldatua izan da, bai famili eta baita gizartean ere. Ondorioz, forma musikalen aniztasuna egunetik egunera txikiagoa da eta komenigarria izango litzateke atzera begiratzea, lehen zegoena ezagutzeko. Argi izan behar dugu ez direla egoera haiek berriro emango, baina, oraindik irauten duena mantentzen eta galdu denaren baliagarria berreskuratzen saiatu beharko ginatke.

## SOINU TRESNAK MUSIKA HERRIKOIAN

Musikari forma ematen dioten osagarriak asko dira, nabarmenenak, doinua, erritmoa, armonia eta tinbrea direlarik.

Munduan zehar sortu izan diren musika herriko bakoitzaren itxura hartzean eragina izan duten zergatiak zehazteko, ikerketa sakon bat beharko litzateke. Baina, zalantzarik gabe, herri bakoitzeko musika autoktonoaren itxura estetikoan eragin, mugatu eta zehaztu izan dutenak, soinu tresna autoktonoak izan dira.

Nahiz eta herri batean, denboran zehar eta gizarte klase eta toki ezberdinetan mota askotako soinu-tresnak aurkitu, hauen artean, badaude, beren itxura, joera, hotsa edo musika bereziagaitik, herri bateko jatorrizko titulua dutenak.

Baina zein dira benetazko "Autoktonoak" eta zein "Unibertsalak"? Beste edozein idei edo gaietan bezala, ezin dugu dena bitan banatu (txuriak-beltzak). Kasu honetan ere, "Autoktono"- "Unibertsala" bi kontzeptu hauen mugak ez daude gehienetan oso definiturik. Honekin zera esan nahi dugu; ez daudela soinu-tresnen artean erabat autoktono edo unibertsalak direnak. Neurri batean edo bestean, denetan aurki ditzazkegu alde bateko edo besteko osagaiak.

Beraz, zertan oinarritzen gara titulo hori emateko? Herri batek tradizioz erabiltzen duen tresna horrek duen itxura (erakuntza eta material), joera, hotsa, musika edo betebeharrak propio edo berezian.

Soinu tresna hauen tinbre eta eskala bereziek, soinuaren emisioak, tesiturak, estensioak, e.a.-ek kolore eta forma melodiko ezberdina eman diete herri ezberdinetako musika autoktonoei. Orkestra eraketak eta soinu tresna polifonikoek ere eragin dute eraketa armonikoetan.

Nola, noiz eta non sortzen dira soinu tresna autoktonoak? Zenbaitzuk erantzun konkretu bat nahiko lukete galdera hauentzat, baina ezinezkoa da, ezagutzen ditugun soinu tresna gehienak ez bait ziren asmatu gaur egun duten itxura eta ezaugarriekin. Oraingoak lehenengo soinu tresna hoiak jasandako aldaketen, erreformen eta garapenen emaitza dira. Garapen eta aldaketa hauek ez dira, soilik, herri bakoitzak bere soinu-tresnengan egindakoak. Arlo honetan, besteetan bezala, kulturen arteko eragina ematen bait da, historian zehar beren artean izandako era ezberdinetan emandako harremanetan.

Hasierako forma instrumental haietatik, (hala nola, txalokak, ahotsa, hankekin kolpatzea, edo inguruan aurki zitezketen materialekin egindako lehenengo tanborrak, flautak, soka tinkatuak, e.a.), gaurko egunera, asko izan dira, herri ezberdinetako soinu-tresnen eraketetan eragina izan duten zergatiak.

Gutxi gora behera kultura guztietan antzekoak izan diren eta egoera natural batetan erabiliak izan diren aintzinako soinu-tresnak, era landuago batean eginak izaten ziren, herri bakoitzak emandako funtzioaren eta teknika ezagupenen arabera.

“Beste kulturetatik hartutako soinu-tresnek aldaketak jasan dituzte herri hartzaileen baldintzen eta aukeren arabera”<sup>2</sup>.

Guzti horrengatik, eta kultura herrikoia hainbat adarretan gertatzen den bezala, oso zaila egiten zaigu neurtzea soinu-tresna horiek ze neurritan dituzten osagai unibertsalak edo bertakoak.

## SOINU-TRESNEN SAILKAPENA

Asko izan dira, ezagutzen diren soinu-tresna meten eza-gutzan sakontzeko aurkeztutako kriterioak, beraien berezitasunetan oinarrituriko kategorietan taldekatuz. Honela, soinu tresnen arteko erlazio eta zerikusiak planteatzeko ordenak finkatu nahi izan dira.

Hona hemen zenbait sailkapen sistema:

- Soinu-tresnaren funtzio musikalean oinarrituak: melodi-koa, erritmikoa, armonikoa,...
- Bere osaketan parte hartzen duten materialen arabera.
- Soinu-tresnaren hots iturrien eta akustikaren arabera.

Azken honetan oinarriturik, 1914-ean, Erich M. von Hornbostel eta Curt Sachs alemaniarrek asmatuako sistema, printzipio akustikoetan oinarriturik dago. Sailkapen sistema hau, orokorrean, unibertsalki onartua izan da.

(Gaurko orkestra akademizistak aipatutako hiru sistema hauek nahastuz ditu: Erritmiko edo perkusio taldea - “Madera eta metal” direlako taldeak - “Viento” delako taldea)

«Hala ere, erabat logikoa izango den sailkapen bat egitea ezinezkoa da, soinu-tresnak gizakiaren asmakizun artifizialak bait dira. Animalia eta landareekin egin daitekeen bezala, hauekin ezin dezakegu era berdinean sailkapen koherenterik egin.»<sup>3</sup>

«...logikaren bitartez ezarritako sailkapena eta terminologiaren zehaztasunagatik, nagusitu den sistema E. von Hornbostel eta C. Sachs-ek 1914-ean sorturikoa izan da.»<sup>4</sup>

Sistema hau da, gure soinu-tresna autoktonoak sailkatu, erlazionatu eta taldekatzeko aukeratu duguna, nahiz eta jakin, kasu guztietan ezin dela era absoluto batetan erabaki, bai bait daude sailkatzen zailak diren batzuk, eta baita talde batean baino gehiagotan sartu ditzazkegunak ere.

E. von Hornbostel eta Curt Sachs-ek beren sisteman, oinarritzko bost talde proposatzen dituzte. Talde honetako bostgarren taldea Electrofonoena da, eta berau alde batetara utziko dugu, landu behar dugun gaietik at geratzen bait da.

Hona hemen beste lau taldeak:

- Idiofonoak; soinu-tresnaren gorputza bera denean bibratzen duen elementua. Berau beraz, aparteko tinkaketarik behar ez duen (soka edo partxeak behar

duten bezala) eta soinua sortu dezakeen materialekin egin egongo da.

- Aerofonoak; aizezko soinu-tresna bezala ere ezagutzen diren hauek oinarritzko bi elementu dituzte: aire zutabe bat gordetzen duen hodi edo ontzi bat eta aire hori bibratu arazteko beharrezko dugun eragilea.
- Membranofonoak; hotsa, zabaldu eta tinkaturiko membrana baten bibrazioek sortzen dutenean.
- Kordofonoak; bibratzen jarritako soka tinkatuek osatzen duten soinu-tresnak dira.

Talde hauen barnean, beste sailkapen batzu egingo ditugu, ondoko aldagai hauen arabera:

- Hots bibrazio eragilea (adibidez, aizezkoetan aire zutabeari bibrazioak transmititzen diona).
- Materiala, itxura eta eraketa (adibidez, idiofonoetan: metalofonoak, litofonoak,...e.a.).
- Hotsa sortuko duen materiala bibratzen jartzeko era (adibidez, sokazkoetan soka bibrarazteko erabiltzen den modua: pultsatua, kolpeatua, igurtzitakoa).

Guzti hau oso konplexua izan daitekeenez, gu sinplifikatzen saiatuko gara, batik bat Euskal-herrian dugun barietate kontutan izanik sailkatuko ditugularik.

### I. IDIOFONOAK

- A) Zuzenean kolpaturikoak.
- B) Era ez zuzenean kolpaturikoak.
- D) Igurtzitakoak eta harraskaturikoak.
- E) Punteaturikoak (malguak).

### II. AEROFONOAK

Airea bibratzen jartzeko erabiltzen duten sistema edo eragilearen arabera taldekatzen dira. Hauek izan daitezke:

- A) Flauta baten ertz zorroztua.
  - Flautak: 1. Zuzenak (bat edo bi eskuz jotakoak).
  - 2. Zeharkakoak.
  - 3. Hodi ertsikoak (“Flauta de Pan” deiturikoak).
- B) Ezpainen bibrazioa.
  - Tronpetak - Adarra.
- D) Mihien bibrazioa
  - 1. Mihi batekoa - klarinetak.
  - 2. Mihi bikoitza - Oboe.

### III. MEMBRANOFONOAK

Eragiteko eraren arabera sailkatuko ditugu.

- A) Koipeatuak, makil, baketa edo eskuekin.
- B) Igurtzitakoak, zuzenean edo ziri edo soka baten bitartez bidalitako bibrazioa.
- D) Airearen bitartez (“Mirlinton” delakoa).

### IV. KORDOFONOAK

Tentsaturiko eta bibrazioan jarritako soka bat edo gehiagoz osaturiko soinu-tresnak ditugu. Hauek monodiko edo poli-fonikoak izan daitezke, eta gehienetan erresonantzi kaxa bat dute.

Soka eragiteko eraren arabera hiru taldeetan sailkatzen dira:

- A) Behatz edo puarekin pultsatuak.

2. Ernesto Veiga de Oliveira. “Instrumentos Musicais Populares Portugueses”, p. 9. Lisboa, 1982. Fundação Calouste Gulbenkian.

3. Curt Sachs. “Historia Universal de los Instrumentos Musicales”, p. 9. Buenos Aires, 1947. Ediciones Centurión.

4. François-René Tranchefort. “Los Instrumentos Musicales en el Mundo”, p. 16. Madrid, 1985. Alianza Editorial - Alianza Música.

- B) Zurdazko arko batez igurtziak.  
D) Baketa edo makil batez kolpatuak.

Jarraian hemen aurkezturiko sistema erabiliz, Euskal-herriko soinu tresnen sailkapena egingo dugu. Hau Aita Donostiak "Instrumentos de Música Popular Española"<sup>5</sup> lanean erabilitakoaren antzekoa da, bera ere E. Hornbostel eta C. Sachs-en sailkapen eran oinarritu bait zen.

#### I. IDIOFONOAK

- A) Zuzenean perkutituriko idiofonoak.
1. Txalaparta, tobera, kirikoketa, alakiketa...  
— Behatzak, txaloak, orpoak edo takoiak...
  2. Bata bastearen kontra jotako bastoiak, makilak, ezpatak,...
- B) Era ez zuzenean perkutituriko idiofonoak.
- Txaramelak, kriskitinak, goilareak, kalaka, matraka, mailuak, ezkilak, joaleak, kanpaiak, panderoaren txindak,...
- D) Igurtzi edo harraskaturiko idiofonoak.
- Thupinautsia-marmita, igurtzitako botilak, karraka, kerrika (gurtardatza),...<sup>6</sup>
- E) Punteaturiko idiofonoak (malguak).
- Tronpa-mosugitarra.

#### II. AEROFONOAK

- A) Flautak:
- Jostailuzko flautak: Txulubitat, txilibituak.
  - Esku bateko flauta zuzenak: Txistu, txirula.
  - Hodi ertsikoak: Pariseko Gizakiaren Museoan euskal flauta bezala agertzen den "Flauta de Pan" delakoa.
- B) Tronpeta
- Adar mota desberdinak.
- D-1 ) Mingain bakarrekoa - Klarineta.
- Alboka, xirularra.
- D-2) Mingain bikoitzekoa - Oboea.
- Sunprinu-tronpeta, txanbela, dultzaina-gaita.

#### III. MEMBRANOFONOAK

- A) Perkutitu - kolpeatuak.
- Atabala, danborra, danbolina, pandera,...
- B) Igurtzitakoak
- Zuzenean: Panderoa  
Ez zuzenean: Eltzegorra.
- C) Airearen bidez (mirlinton)
- Turutak.

#### IV. KORDOFONOAK

- A) Pultsaturiko soka.
- Lauda, bandurria, arpa, kitarra.
- B) Igurtzitako soka.
- Arrabita - bibolina.
- D) Perkutituriko soka.
- Danburia - txun txuna

#### EMATEN DEN ATZERAKADARI IRTENBIDEAK

Ikusdezakegun bezala, Euskal-herrian erabiliak izan diren soinu-tresnen zerrenda oso luzea da, beraz, esan dezakegu, historian zehar, organologian oso material multzo handia eta bariatua izan dugula.

Denboran zehar, soinu-tresna hauen hotsak, herriaren kolektibo eta bere partaideek bizitako zenbait mementu eta gertakari lagundu ditu.

Zenbait kasutan, joleak, musikari ia profesionalak ziren, eremu zabal edo txiki batean, festa ofizial, herrikoi eta familiakoetan iharduten zutelarik. Hala ere, kasu gehienetan, joleak, ordaindu edo ordaindu gabe, bere denbora librean, zaletasunagatik edo dibertsio moduan aritu diren pertsonak izan dira.

Bere funtzionaltasunak garrantzizko atzerapausoa jasan du, eta ondorioz, zenbait kasutan bere ingurutik desagertzera iritsiz. (txanbela, Gipuzkoan alboka, toberak, sunprinua,...). Batzuk, baztertuak dauden leku eta ekitaldietan larri larri irauten dute. Iraupen hau ohituragatik, zerbait exotikoa delako edo lekukotasunagatik ematen da.

Nahiz eta oraindik, zorionez, batzu aurkitu, garai batean bezala, beren funtzioa betetzen jarraitzen duten eta era natural batean (hau da, beren hots eta musikagatik) onartuak diren soinu-tresna autoktonoen kasua oso txikia da.

Garai batean, soinu tresna eta bere musika inguruagatik onartua zenean, ikasteko demanda haundiagoa ematen zen, eta ondorioz, musiko kompetenteagoak sortzen ziren.

Baina lehenago esan dugun bezala, gaur egungo egoera beste bat da. Gaur egun, soinu-tresnak eta beren musikak guztiz ezezagunak dira bere inguruan ere, eta traba guztiei aurka eginez berau irautarazten saiatzen diren sinisdun batzuren lanagatik jarraitzen dute kasu batzu bizirik.

Egoera hauek ez dira batere egokiak soinu-tresna hauen joleen bokazioak sortzeko, eta are gutxiago interpretazio maila egokiak lortzeko, herriak maila jakin baten eskaerarik egiten ez duen bitartean goi maila bat lortzeko eginak ere ez bait dira egiten.

Guzti honengatik, gaur egun, gure soinu-tresna autoktonoak berreskuratzeko bi betebeharrak azaltzen zaizkigu.

1. Zabaltze orokorrari dagokiona. Ezagutarazi behar dira: nolakoak diren (eraketa eta funtzionamendua), nolako den bere hotsa, bere musika, zertarako, nola eta non joa izan den, nork eta nola,... Laburtuz, osotasunean ezagutarazi behar da soinu-tresna hauei dagokien guztia.

2. Soinu-tresna hauek egingo dituztenen eta baita joko dutenen formazioaren berreskurapena eta jarraipena posible egingo duten neurri egokiak ezarri behar dira.

Noski, guzti hau errena, osatu gabea geratuko litzateke zaleen edo jarraitzaileen talde bat eta berreskurapenerako demanda bat sortaraziko luketen aldaketekin batera joango ez balitz. Hau oso zaila izango da, lehenengo lan bezala jarri

5. P. Donostia. "Instrumentos de Música Popular Española". Anuario Musical del IEM, nº II, p. 105-152, Barcelona, 1047. Obras Completas del P. Donostia delakoan berrargitaratua, t. 11, p. 113-179. Bilbao, 1983. Editorial La Gran Enciclopedia Vasca.

6. P. Donostia. "Instrumentos Musicales Populares Vascos". Obras Completas del P. Donostia, p. 294-295.

dugun hori betetzen ez bada, eta honekin batera, soinu-tresna hauen garapenerako behar diren giro eta inguru egokiak ematen ez badira.

Gaur egun ematen ez den giro eta inguru hori lortu ahal izateko baliabide berri eta egokiak aurkitu beharko ditugu, garrantzitsuenetariko bat ikastetxea izango litzatekeelarik.

Hauek, beren musika programaren barnean honako sailak sartu beharko litzukete:

'Ikuspegi akustiko-musikal batetik egindako gure organografi herrikoari buruzko ikerketa:

Gaur egun erabiltzen jarraitzen diren eta dagoeneko erabiltzen ez diren soinu-tresnak, soinu-tresna musikalak deritzaienak eta kategori hori hartu gabe jostailua edo hots tresnak, guzti hauek sailkatu eta kokatu behar dira, eta munduko beste kulturetan erabilitako antzeko beste batzurekin konparatu behar dira.

Bere eraketan parte hartzen duten materialak eta ezau-garri akustikoak.

- Materialei dagozkien prestaketa:

Soinu on bat lortu ahal izateko metalen, soken, larruen, adarren,... prestaketa eta manipulaketa.

Egurraren edo kainaberaren moztea zein urtarotan eta ilargiaren zein fasetan eman behar den, saparen mugimenduan eta landaretzaren urteko zikloan ilargiaren eraginak garrantzia bait du.

- Soinu-tresnaren zati ezberdinak eta bere funtzio konkretuak:

Hotsaren sortzailea den elementu bibratzailea.

Enbokadura, hodi sonoroak, aire zaku eta auspoak, anplifikadoreak.

Erresonantzi kaxak.

\*Nortzuk jo izan dituzten edo eta jotzen dituzten:

- Adinaren arabera; haurrak, gazteak, helduak.
- Sexoa.
- Jatorri kulturala; kaletarra, baseritarra,...
- Lanbidea; artzaiak, nekazariak, artisauak, funtzionarioak,...
- Bere gizarte onespina; legeak, normatibak eta jole hauen betebeharren ondorioz sorturiko historioak.
- Beren musika ikasketak; bazituzten ala ez, eta izanez gero, akademiko musika zenbateraino ezagutzen zuten. Soinu-tresna autoktono horretaz gain beste zer-bait jotzen zuten.
- Ikasketa sistemak eta musiko postu edo harduraren transmisioa.
- Garai ezberdinetan, musiko emaille izan diren lekuak.

\*Non, noiz eta zertarako jo izan diren.

- Baseritar eta kaletar guneak. Plazak, udaletxe eta eliz atariak, larrainak, mendia, ermitak...
- Jai nagusiak, erromeriak, ihauteriak, igandeak, ekitaldi ofizial edo elizkoiak,...

- Dantza saioak, entzunaldiak, desfileak, martxak, prozesioak...
- Auzolanetako betebeharrak egitean edo bukatzean: Txalaparta, tobera, kirriketa,...
- Ongietorri eta agurretan, une goibel eta zailak arintzeko, zorionean eta euforian laguntzeko,...

'Hots ezaugarriak eta musika errepertorioa:

- Soinu-tresna ezberdinen joleen zuzeneko, grabaturiko eta filmaturiko ikus-entzunaldiak.
- Ondorengo puntu hauen ezagutza: tinbre ezberdinak, erabilitako eskalen berezitasunak eta hauen garapen edo aldaketak, tonu hedapena, soinu-tresna armoniko sinpleak (xirolarru, zarrabete edo txirula-txun txun) edo konplexuak (akordeoi diatonikoa), airea emititzeko erak (adibidez, albokaren kasuan ematen den aire-ari buelta emateko teknika berezia), e.a.
- Doinu herrikoietan ematen den erritmo aberastasuna bai metrikoak (bikoak, hirukoak eta amalgama) eta baita librean ere (hauek, ñabardura erritmikoak egiteko aukera haundiagoa ematen digute).
- Musika herrikoian ematen diren estilo ezberdinak, zonaldearen, jolearen prestakuntzaren, tresnaren, e.a.en arabera.

\*Eraiketa eta interpretazio lanak:

- Gure inguruko material ezberdinekin jostailu eta hots tresnak egitea: Gari lastoak, hostoak, belarrak, intxaur azalak, egurtxoak, lata poteak,...
- Gure inguruko material ezberdinekin soinu-tresnak era sinplean egitea: adibidez, sunpriñua, alboka, txistus,...

Guzti hauekin hotsaren ezagutza eta interpretazioan lehenengo pausoak ematen dira.

Eskoletan gaur egun interpretazio lehen hurrtsak flauta gozoegin ematen den bezala zergatik ez eskualde bakoitzean bertako soinu-tresna herrikoiarekin; txistu, txirula, alboka, dulzaina, txalaparta, . . .

'Irakaslegoaren prestaketa. Lan hau bete ahal izateko, berau ikastetxeetara eramango duen bitartekari baten beharra ikusten dugu. Bitartekari honen prestaketa egokirako baliabideak ezarri beharko dira, eta baita beraien lana aurrera atera ahal izateko azpiegitura egoki bat (liburutegiak, fonotekak, bideotekak, erakusketak, tailerrak...).

Hemen agertu duguna ezagutu ondoren, errezagoa izango da gure soinu-tresna eta honen inguruan dagoenaren gusto eta zaletasuna berreskuratzea, bai galtzen joan diren ohitura, festa, musika, dantza, e.a.-engan eta gaur egun lortu dezaketen funtzio berriengan.

Honela, ikastetxeak soinu-tresna jole bokazioen harrobian bihurtuko lirake. Ikasle gazte hortatik sortuko ziren etorkizuneko musikari herrikoiak.

Eta ikastetxeetan egindakoari jarraipena emanez, Musika eskoletan zabaldu beharko litzake tresna hauek sakonki ikasteko aukera, eta ondoren, ikasteetxe, musika eskola, udal kultur batzorde, kultur elkarte eta erakundeak funtzionalitate eta

zeregina ematen saiatu beharko lirake; emanaldiak, dantzaldiak, dantza taldeak,...

Hasieran esaten genuen ez dela batere erraza izango guzti hau aurrera ateratzea, bahinan pena mereziko luke gogotik saiatzea gurea den edo izan den hori berreskuratzen. Lortuko bagenu, obeto ezagutuko genuke zer izan gara, zer

gara eta gerana izaten jarraitzeko ahalmentsuagoak izango giñake.

Gure kultura indartzen, aportazio handia egin genezake gure eta munduko ondareari, ez bait dago kasu honetan kontrastesanik bertako eta munduko izatearen artean.